

## **ALDAKETAK OTSAILAREN 26AN LARUBATEAN ETA 27AN, IGANDEAN, EGINGO DIREN MANIFESTAZIOAK DIRELA-ETA**

Datorren larunbatean , **otsailaren 26an 11:50etik 13:30era** eta **Igandean, otsailaren 27an, 11:30etik 13:30era** gutxi gorabehera manifestazioak egingo dira Donostian , eta manifestazio horiek dela-eta aldaketa hauek egingo dira Dbuseko zerbitzuetan:

### **• 5-Benta Berri, 16-Igeldo, 18-Seminarioa eta 25-Benta Berri-Añorga:**

- Erdialderantz: San Martinetik ibiliko dira, eta Manterola kalean jiratuko dute Zubieta 14rantz (bukaerako geldialdia).

**Geltoki hauek kenduko dira: Askatasunaren Hiribidea 31, Okendo, Boulevard eta Gipuzkoa Plaza.**

- Antigu alderantz: ohiko ibilbidea Zubieta 14tik.

**Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard eta Gipuzkoa Plaza. Zubieta 14ra eramango dira.**

### **• 19-Aiete-Bera Bera:**

- Erdialderantz: Aldapetatik jaitsi eta gero Easotik jarraituko du, Askatasuna hiribidetik pasa eta Urbietarantz joango da Urbieta 6an azken geldialdia eginez.

**Okendoko geltokia eta Peñafloidakoa kenduko dira.**

- Aiete alderantz: ohiko ibilbidea Urbieta 38tik aurrera.

**Peñafloida geltokia kenduko da.**

### **• 21-Mutualitateak-Anoeta, 26-Amara-Martutene eta 28-Amara-Ospitaleak:**

-Easo eta Askatasuna hiribidetik etorriko dira Urbieta kalerarte, Urbieta 6-12 geltokian eginez azken geldialdia.

**Okendoko geltokia eta Boulevardekoa kenduko dira eta Urbieta 6-12ra lekualdatuko dira.**

### **• 13-Altza, 14-Bidebieta eta 29-Hego Intxaurren Sur:**

Bukaerako geldialdia Mirakruz kalean.

**Kursaaleko geltokia, Boulevardekoa, Gipuzkoa Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidekoa kenduko dira, eta Mirakruzera lekualdatuko dira.**

### **• 8-Gros-Intxaurren:**

Bukaerako geldialdia Iparragirre kalean.

**Boulevardeko geltokia eta Askatasunaren Hiribidekoa kenduko dira, eta Iparagarre kalera lekualdatuko dira.**

• **9-Egia-Intxaurrondo:**

Iztuetatik aurrera Frantzia Pasealekutik, Maria Cristina Zubitik eta Foruetatik ibiliko da, eta Santa Katalina Zubian egingo du bukaerako geldialdia (behin-behineko zutoina).

**Geltoki hauek kenduko dira: Euskadi Plaza, Boulevard eta Askatasunaren Hiribidea. Santa Katalina Zubira eramango dira.**

• **42-Aldapa-Egia:**

Galtzara Nagusitik aurrera Colón Pasealekutik, Frantzia Pasealekutik, Maria Cristina Zubitik eta Foruetatik ibiliko da, eta Santa Katalina Zubian egingo du bukaerako geldialdia (behin-behineko zutoina).

**Geltoki hauek kenduko dira: Kursaal, Boulevard eta Askatasunaren Hiribidea. Santa Katalina Zubira eramango dira.**

• **31-Intxaurrondo-Ospitaleak-Altza:**

- Aiete-Ospitaleak alderantz: Colón Pasealekutik joango da, Frantzia Pasealekutik, F.G. Lorcatik, Urumea Pasealekutik, Agirre Lehendakariaren Zubitik, Amarako estazio zaharretik, Pio XIItik, Antso Jakitunaren Hiribidetik eta Easo kaletik, eta Lizarra kaletik iritsiko da (geldialdia behin-behineko zutoinean) eta handik aurrera bere ibilbidea egiten jarraituko du.

**Kursaaleko geltokia, Boulevardkoa, Urbieta 6koa eta Larramendikoa kenduko dira, eta Colón Pasealekura eta Lizarra kalera lekualdatuko dira.**

- Intxaurrondo-Altza alderantz: Aldapetatik jaitsi eta gero, Easo 17an geldituko da, S.Martin Urbietarantz biratzen. Gero, Mendeurrenetik eta Parke kaletik jarraituko du, Gernikako Arbolarantz, Foruetarantz (17 linearen geldialdiak) eta Santa Katalina Zubirantz (geldialdia behin-behineko zutoinean), eta Mirakruzetik aurrera betiko ibilbidea egiten jarraituko du.

**Easo 27ko geltokia eta Askatasunaren Hiribidea 3koa kenduko dira, eta Santa Katalina Zubira lekualdatuko dira.**

• **33-Larratxo-Intxaurrondo-Antiguo-Berio eta 45-Renfe-Bus Geltokiak-Antiguo-Aiete:**

- Antiguo alderantz: Frantzia Pasealekutik joango dira, eta gero Iparreko Geltokitik, F.G. Lorcatik, Urumea Pasealekutik, Lehendakari Agirre Zubitik eta Pio XII.etik, Izoztegiko bidetik, eta Pio Barojatik jaitsiko dira, eta Zumalakarregitik bere ohiko ibilbidea egingo dute.

**Geltoki hauek kenduko dira: Askatasunaren Hiribidea 18, Zubieta 14 eta La Perla. Colón Pasealekura eta Iparreko Geltokira eramango dira.**

- Erdialderantz: ez dute Easo kalean jiratuko eta San Martin kaletik jarraituko dute (geldialdia San Martin 25ean), Urbietan jiratu, eta Mendeurrenerantz jarraituko dute, eta gero Parke kaletik, Gernikako Arbolatik eta Foruetatik joango dira (17 linearen geldialdiak) Santa Katalina Zubirantz (geldialdia behin-behineko zutoinean 33 linearentzat), eta betiko ibilbidea egiten jarraituko dute.

**Geltoki hauek kenduko dira: Askatasunaren Hiribidea 31, Askatasunaren Hiribidea 21 eta Askatasunaren Hiribidea 3. San Martin 25era eta Santa Katalina Zubira (33L) eramango dira.**

• **36-San Roke-Aldakonea:**

- San Roke alderantz: Frantzia Pasealekutik joango da, Iparreko Geltokitik (geldialdia), Primetik, Morazatik, Urbietatik, Pedro Egañatik eta Easo kaletik. Ondoren, San Bartolomen jiratuko du eta Urbieta 38rantz egingo du.

**Euskadi Plazako geltokia, Askatasunaren Hiribidekoa eta Urbieta 6koa kenduko dira, eta Iparreko geltokira eta Urbieta 38ra lekualdatuko dira.**

- Aldakonea alderantz: Easo 27tik aurrera San Martinetik, Urbieta kaletik, Mendeurrenaren kaletik eta Parke kaletik jarraituko du. Gero, Gernikako Arbolarantz, Foruen Pasealekurantz (17 linearen geldialdiak) egingo du eta Santa Katalina Zubirantz (geldialdia behin-behineko zutoinean). Mirakruzetik aurrera bere ibilbidea egingo du.

**Askatasunaren Hiribidea 19ko geltokia kenduko da eta Santa Katalina Zubira lekualdatuko da.**

• **37-Rodil-Zorroaga:**

- Zorroaga alderantz: Colón Pasealekutik eta Frantzia Pasealekutik ibiliko da eta gero ohiko ibilbidea egingo du.

**Kursaaleko geltokia, Askatasunaren Hiribidekoa eta Gipuzkoa Plazakoa kenduko dira, eta Colón Pasealekura eta Iparreko Geltokira eramango dira.**

- Rodil alderantz: Antso Jakitunetik aurrera, Luca de Tenan jiratu eta Gernikako Arbolarantz eta Foruen Pasealekurantz (17 linearen geldialdiak) egingo du, eta gero Santa Katalina Zubirantz (geldialdia behin-behineko zutoinean). Hortik aurrera, bere ohiko ibilbidea egingo du Mirakruz kaletik.

**Easo Plazako geltokia, Easo 27koa eta Askatasunaren Hiribidea 21ekoa kenduko dira, eta Santa Katalina Zubira lekualdatuko dira.**

• **46-Morlans:**

- Morlans alderantz: Colón Pasealekutik Frantzia pasealekura joaten da, Iparraldeko geltokitik (geltokia), Prim, Moraza, Pedro Egaña, Easo kalea, Askatasunatik Urbieta 6ra biratuz, betiko ibilbidearekin jarraitzeko.

**Askatasuna geralekua kendu egingo da.**



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

- San Antoniorantz: Foruen Pasealekutik Santa Katalina zubirantz jarraitzen du (behin-behineko zutoina), Mirakruz kaletik ohiko ibilbideari jarraituz.

**Askatasunaren hiribideko 3. Geralekua kenduko da, eta Santa Katalinara lekualdatzen da.**

Informazio gehiagorako, kontsultatu [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus) helbidean edo 943 000 200 telefonora deituta.

